



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

HEZKUNTZA  
ETA KIROL  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE EDUCACIÓN  
Y DEPORTE

**DRAMATIZAZIOA POBLAZIOA  
GUTXITUEKIN: IKASKETA-ZERBITZUA  
AUKERA BEZALA**

**GRADU AMAIERAKO LANA**

**EGILEA:** Olmos Aranz, Ekhiñe

**ZUZENDARIA:** Bizkarra , Maria Teresa

**2019-2020**

## **DRAMATIZAZIOA POBLAZIO GUTXITUEKIN: IKASKETA-ZERBITZUA AUKERA BEZALA**

**Ekhiñe Olmos**  
UPV/EHU

### **Laburpena**

Lan honen helburua, ikaskuntza zerbitzu bat ematea da, zerbitzua, aisialdia jasotzeko zailtasunak dituzten kide ezberdinei. Horretarako, dramatizazioan oinarrituta aniztasun funtzionala duten gazteekin aurrera eramatea erabaki zen, haien autonomia eta emozioen kudeaketa hobetzeko eta hala, honekin batera ahozקותasuna eta mugimendua lantzen dutela. Gainera, ikaskuntza zerbitzua eskainita, bertan ikasitako balore eta egoerekin haien egunerokotasunean aplikatzeko aukera izan dut.

Horretarako, ikasketa zerbitzua metodo baten bitartez, Mila kolore elkarteko gazteekin batera, dramatizazioan oinarritutako prozedura bat martxan jarri dut. Prozedura honetan, egindako ekintzak, aipatutako helburuei jarraituz egin dira. Zerbitzuari buruzko informazioa biltzeko egun bakoitzeko narrazio etnografiko bat egin dut, eta egunerokoaren analisiarekin emaitzak lortu ahal izan dut.

Emaitzak ateratzeko orduan eguneroko bat egin dut eta bertan, saioetan gertatzen zirenak jaso ditut, hala nola, egindako planifikazioa, taldearen arteko harreman ezberdinak, bizi izandako sentipenak eta inzidente kritikoak. Modu honetan, esperientzia zoragarri honen ideia eta sentimenduak modu ordenatu batean antolatzeko aukera izanda. Izan ere, zerbitzua eskaintzea pertsona bezala aberastu egin nauela esan dezaket.

*Hitz gakoak: ikaskuntza zerbitzua, aniztasun funtzionala, dramatizazioa, mugimendua, baloreak, emozioak, ahozקותasuna*

## Resumen

El objetivo de este trabajo ha sido dar un servicio a personas que tienen dificultades para realizar actividades de ocio y recreación. Por ello, se llevará a cabo actividades de dramatización con jóvenes que tienen diversidades funcionales, con la intención de trabajar la autonomía y las emociones de dichos jóvenes y a su vez mejorar el movimiento y el habla. Gracias a este servicio, tendrán oportunidad de aplicar los valores aprendidos en diferentes situaciones de su día a día, y yo tendré la oportunidad de aprender junto a ello/as como llevar a cabo para empezar un servicio y para seguir diferentes circunstancias y situaciones.

Por eso, basándome en la dramatización he llevado a cabo un servicio con jóvenes de la asociación de Mila kolore. Estas actividades se han realizado en 4 sesiones diferentes y la información ha sido recogida gracias a un diario en el que he anotado mediante una narración etnográfica los sucesos de cada sesión, para así, al analizar el diario poder obtener los resultados deseados.

A la hora de conseguir u obtener dichos resultados, quedarán reflejadas las anécdotas de las sesiones, es decir, la planificación que se ha llevado a cabo, las diferentes relaciones que se establecen entre los participantes, los sentimientos vividos y los incidentes críticos. De este modo, se recoge una información ordenada, ya que, el ofertar este servicio me ha hecho crecer como persona en el ámbito personal.

*Palabras clave: Aps, aprendizaje del servicio, diversidad funcional, dramatización, movimiento, valores, emociones, competencia comunicativa oral*

## Summary

The aim of this work has been to provide a service to people who have difficulties in carrying out leisure and recreational activities. Therefore, dramatization activities will be carried out with young people who have functional diversities, with the intention of working on the autonomy and emotions of these young people and at the same time improving movement and speech. Thanks to this service, they will have the opportunity to apply the learned values in different situations of their day to day, and I will have the opportunity to learn together how to carry out a service and to follow different circumstances and situations.

Therefore, based on the dramatization I have carried out a service with young people from the association of Mila kolore. These activities have been carried out in 4 different sessions and the information has been collected thanks to a diary in which I have written down by means of an ethnographic narrative the events of each session, so that, when analysing the diary, I can draw out the results. So that, when analyzing the diary, we can get the desired results.

In order to achieve or obtain these results, the anecdotes of the sessions will be reflected, that is to say, the planning that has been carried out, the different relationships that are established between the participants, the feelings experienced and the critical incidents. In this way, an orderly information is collected, since, offering this service has made me grow as a person in the personal sphere.

*Keywords: Aps, service learning, functional diversity, dramatization, movement, values, emotions, oral communication competence.*

AURKIBIDEA:

Sarrera.....	5
Justifikazioa	
Marko teorikoa.....	6
Ikasketa zerbitzua	
Ikasketa zerbitzua eskuratzeko momentua	
Dramatizazioa	
Ikasketa zerbitzua eta dramatizazioa	
Helburuak.....	14
Metodoa.....	15
Testuingurua	
Parte-hartzaileak	
Tresnak	
Prozedura	
Analisia	
Emaitzak.....	20
Eztabaida eta ondorioak.....	32
Mugak eta hobekuntza proposamenak.....	36
Erreferentziak.....	38
Eranskinak.....	41

## **1 SARRERA:**

Graduko 4. eta azkeneko urte izanik, gradu amaierako lana egiteko momentua izan da. Lan honek, lan indibiduala, akademikoa eta autonomoa da, inplikazioa eta erantzukizuna eskatzen duena. Analisi teoriko-praktiko batean oinarrituta dagoen lana da, I+Z gaia jorratzen duena. Lana aurrera eraman ahal izateko, puntu ezberdinetan banatuta dago.

Sarrerako atal honetan, lanaren nondik norakoak zeintzuk diren azaltzen da. Esan bezala, lana hainbat ataletan banatuta dago: marko teorikoa, helburuak, metodoa, emaitzak, eztabaida eta ondorioak, mugak eta hobetzekoak, bibliografia eta eranskinak.

Lanari hasiera emateko, marko teorikoa dugu, I+Z eta dramatizazioaren inguruko definizioak eta hauen arteko loturak azaltzen dira. Izan ere, hau da lan honen asmoa, ikaskuntza zerbitzu bat ematea, zerbitzu hau jasotzeko zailtasunak dituzten kide ezberdinei. Kasu honetan, zerbitzu hau, Milakolore elkartearekin aurrera eramateko proposamena izan da, elkarte honetako kideek aniztasun funtzionala duten kideak direla eta.

Honetarako, helburu batzuk finkatzea ezinbestekoa da, hauek egin beharreko lanarekin lotura eta zerikusia duten bitartean. Hortaz, finkatutako helburu horiek lanean zehar betetzen diren ala ez konprobatu beharrean gaude. Gainera, zerbitzua posible izateko, metodo bat egon da. Horretarako, esku-hartze bat planifikatzen da, helburu eta gaiarekin lotura egiten duena. Horretaz gain, elkartearen inguruko informazioa ezberdina jasotzea ezinbestekoa izan da, ekintza egokiak prestatzeko.

Jarraitzeko, prozesu osoan zehar eman diren pausoak analizatu behar dira. Horrekin emaitzak eta ondorioak lortzeko asmoarekin. Honetarako, ezarritako helburuak eta marko teorikoa alderatuz.

## **2. MARKO TEORIKOA**

Honako lanean, ikasketa zerbitzuaren (I+Z) metodologia erabiltzen ari naizenez, honen inguruko informazioa jasotzeaz arduratu naiz. Ikasketa zerbitzua, aniztasun funtzionala duten ikasle batzuekin martxan jarri dut eta honekin lotuta, dramatizazioaren gaia landu dut ere. Zerbitzua dramatizazioarekin lotzearen ideia interesgarria iruditu zait, mugimendua eta espresioa modu ezberdin batean lantzen delako. Horregatik jarraian, hauen inguruko informazioa helarazten dut.

### **2.1 IKASKETA ZERBITZUA**

Gaur egun ikasketa zerbitzuari (I+Z) buruzko definizio ugari daude. Lan honetan, zerbikas fundazioak ematen dituen definizioen artean, ikasketa zerbitzua, ikasketa eta komunitatearentzako zerbitzua proiektu berean uztartzen dituen hezkuntza-proposamena direla esango nuke (zerbikas, 2020).

Bestalde, aipatzekoa da, irakasgai baten curriculum-a eta komunitateari egiten zaion borondatezko zerbitzua batzen duen metodologia bat dela eta komunitateak dituen behar batzuei erantzuna ematen zaiola eta aldi berean, zerbitzua jasoko dutenen ezagupen eta baloreen ikasketa batzen duela modu zirkular batean. Gure kasuan, GrALA egiten ari garen ikasleei egin diegu eskaintza hau, eta honekin, hainbat autoreek esaten duten moduan, ikasleek hainbat balore eskuratzeko gai izango gara praktika honen bidez (*Puig, Gijón, Martín eta Serrano, 2011, 45 or.*).

Horretaz gain, I+Z-a bestelako edozein metodologia izango balitz bezala aurkezten da, zeinetan, ikasketa akademikoa eta komunitate zerbitzuak barne hartzen diren. Pertsona bakoitzaren esperientziaz abiatutako ikasketetan oinarritzen da eta ikasketari zentzua ematen saiatzen da, bai arlo akademikoan bai sozialean (*Capella, Gil eta Marti, 2014* ).

## 2.2 IKASKETA ZERBITZUA ESKURATZEKO MOMENTUA

Ikasketa zerbitzua graduko ikasleekin martxan jartzea oso garrantzitsua den prozesu eta lan bat da. Hasteko, hezkuntzaren helburu nagusia betetzeko, gizarterako hobekuntzak ekarriko dituelako, bai pertsonalak eta baita ere profesionalak hezteko eta curriculum bat osatzeko asmoa. Jarraitzeko, etorkizuneko irakasleak izango garenak gure inguruko aldaketak egiteko gai garelako eta bukatzeko, komunitateari zerbitzua egiteko gai garelako, baliabide eta estrategia ezberdinak ezarriz eta beste kideei laguntzeko gai garelako, errealitatearekin zuzeneko kontaktua dugulako (*Puig, Battle, Bosch eta Palos, 2007, 23. or.*). Esan bezala, azken finean, I+Zaren helburua, hezkuntzaren benetako arrakasta herritar probetxugarriak eta gizartea hobetu nahi dituzten irakasleak formatzea da, irakasgaiaren curriculum-ean zentratzea baino. Haurrak jaiotzen direnetik gizartearen parte dira eta ikasketa zerbitzuaren bitartez, inguruan dituzten aldaketei aurre egiteko gai dira, hala nola, ipuinak kontatzen etab.

Haurrek eta gazteek haien denbora librean sustatzeko, inklusio soziala eta haurren hezkuntza kalitatea hobetzeko, hezkuntza eta sozializazioa sustatzen duten proiektu bat egin beharko da (*Battle, Garcia, Parpal eta Garcia, 2015*). Metodo honen bitartez, GrALeke ikasleak ikasten dutenaren ezagutzak praktikara eramaten hasiko gara (*Battle, 2014 5. or*). Battlek esaten duen bezala, “*izango ditugun ikasleek gizartearen parte hartu eta hobetzeko zein mundu anaitar eta bizigarri bat egiteko eskubidea dute*”. Esaldi honek modu labur batean aurretik azaldutakoa islatzen du, hori da, denok gizartearen eta haien inguruaren aldaketen parte direla.

Roser Batllerren ustez (2014), zerbitzua egingo duenak oso argi izan behar du zer nolako pausoak eman behar dituen ikasketa zerbitzua aurrera eramateko eta horretarako hiru fase egongo dira: prestaketa, ekintza eta ebaluazioa.

1. Prestakuntzaren lehenengo pausoa, nik hezitzaile bezala ikasleekin zer ikasiko dudan eta ikasleek nirekin zer ikasiko duten argi izatea da. Nire kasuan, hainbat hezkuntza esparrutan eta aniztasun funtzionalean lan egitea da. Haien kasuan, berriz, dramatizazioaren bitartez mugimendurako eta harremanetarako bide ezberdinak ikastea. Hala nola, egitekoaren inguruko ideia argi izatea proiektuaren planifikazioarekin batera.



2. Bigarren pausoa, ekintza aurrera eramatea da, ikasgela osoarekin, prestatu dudana programazioa jarraituta.
3. Ebaluazioa ondoren dator, ikasle bakoitzarekiko egindakoaren inguruko hausnarketa izango dena.

Beraz, guzti hori kontuan hartuta, ikasketa zerbitzua, metodologia berritzaile bat dela esango genuke, gizartea hobetu eta hezitzaile bezala egiten dudana lan eta esfortzuarekin ikasketa solidarioagoa izan daitekeela barneratzea eta ideia hori zabaltzea. Ikasleek egiten dituzten ekintzetan aplikatzen dugun zerbitzua era berritzaile baten bitartez, haiekin batera dramatizazioko ekintza horiek modu eraginkor batean gauzatu ahal izateko.

Aipatzekoa da ere, askotan “berrikuntza” eta “berria” terminoek nahastu egiten direla horregatik hauen arteko ezberdintasuna azaltzeko beharra ikusten dut metodo honen funtsa ondo ulertzeko. Berria den zerbait, momentu batean gertatzen dena da, edonon, edozein momentutan. Honen inguruko Mitxelenaren jakintza kontuan hartuta, berrikuntza, prozesu bat da, zerbait hobetzeko nahian, lan hori hasten den momentutik bukatzen den arte egiten den ibilbidea (Mitxelena, in Noguera, 2020). Berrikuntza orduan, ez da puntuala eta irakasleek ikasleen irakas-ikasketa prozesua hobetze aldera erabiltzen duen estrategia eta ideia berrien aplikazioa da, hezkuntzan aldaketak eginez (Martinez, 2008, 16. or).

Honetarako, zerbitzua aurrera eramaten dudana momentuan, protagonista bihurtzea behar-beharrezkoa da, motibatua egon behar dudalako gizartearen arazoan aurrean erantzun bat eman ahal izateko. Gizartearen beharrak asetzeko planteamendu baten abiapuntutik ebaluaziora (Mendia, 2016). Honen aurrean, Nieves Tapiak hiru ezaugarri garrantzitsu antzematen ditu:

1- Guk ikasle bezala, ikasketaren protagonista aktiboa izan behar dugula eta gauzatuko diren ekintzak haurrek naiz helduek gidatzeko gaitasuna demostrar dezaket, formakuntza izan edo ez, talde edo banako baten laguntzaz.

2- Elkartasun zerbitzuan egoera errealean aurrean eta dauden adinak kontuan hartuta, hainbat ekintza prestatzen dira.

3- Planifikatutako proiektuak egingo dira eta aurrera eramango dutugu elkartasunezko ekintzekin.

Hori dela eta, metodologia hau erabiltzea nire GrAL-ean hainbat ekarpen ekartzea zuela uste dudalako eta modu honetan, dramatizazio proposamen batekin joango naiz Mila koloreko elkartera. Beraz, hau izanda nire ideia, jarraian dramatizazioaren hastapenak azalduko ditut.

### 2.3 DRAMATIZAZIOA

Aipatutako guztia kontuan hartuta, hobekuntza bat egiteko nahian, dramatizazioarekin zerikusia duen ikasketa zerbitzua eskainiko dut lan honetan. Dramatizazioak zailtasunak dituzten pertsonekin lantzea erabaki dut (haien gorputz, mugimendu, motibazioa, gogo eta abar) garrantzitsua ikusten dudalako. Dramatizazioaren bitartez haurrak jolasean murgildu egiten dira eta modu honetan, jolasaren bitartez, aipatutako mugimendu, motibazioa etab errazago lantzen dituzte. Honek mugimenduekin duen lotura ikusita, batetik, lan pertsonala bultzatzen du haien mugimenduekiko dituzten ahalmenak zeintzuk diren ezagutzen duten bitartean. Eta bestetik, banaka lantzen dituzte ahalmen horiek gero beste pertsonekin lantzen dituzte, ortaz, lan soziala ere bultzatzen du (Vaca, 2000, 108.or).

Beraz, argi dago dramatizazioak erabiltzen duen tresnarik garrantzitsuena mugimendua dela. Honen barruan, bakoitzak egiten dituen mugimenduak, keinuak, erabiltzen den entonazio mota, erritmo ezberdinak, bakoitzaren ametsak, beharrak, nahiak sartzen direlarik. Gainera, hauek erabiltzen ikasteaz gain, kontuan izan behar da, hauek erabiltzerakoan ingurukoek nola jasotzen duten. Hortaz, aurretik aipatu bezala, ez da lan pertsonala bakarrik baizik eta ingurukoekin elkarlana. Honekin ikusten dena, dramatizazioak emozioak lantzen dituela da eta horregatik, ikasleek honen bitartez, emozioak, segurtasun pertsonala eta sormena islatzen dute eta hauei esker, inguruko errealitateri aurre egiteko baliabideak lantzen dira (Cruz, 2014, 111. or). Gainera, honekin batera ere, desinhibizioa, motibazioa, irudimena eta sormena lantzen dira (Barroso eta Fontecha, 1999).

Fleming (1994, 7. or.) autoreek defendatzen duten ideian islatzen den bezala, dramatizazioak duen ahalmen ludikoarengatik, motibatzailea den tresna bat bezala jokatzeko aukera ematen du. Dramatizazioa tresna globalizatzailerik bat da, garapen kognitibo eta afektiboak lantzen duena gorputzaren bidez eta haien sormena erabiliz, errealitatea islatzeko hainbat gauza egin ditzakete, bakarka edo taldeka landuta (Navarro, 2007, 163. or.). Dramatizazioa orduan, oso tresna garrantzitsua da eta honen bitartez komunikazio eta espresioari buruzko baliabideak landu daitezke, hala nola, ahozkotetasuna landu, mugimendu ezberdinak, emozioak, harremanak, elkar-entzutea etab.

Hainbat izan dira erabili diren kontzeptuak dramatizazioa izendatzeko. Lan honetan, Heziberrin jartzen duen bezala, dramatizazioa gorputz Heziketaren barruan kokatuta dago eta arterako kompetentziara joatzekotan, arte hezkuntza aurkitzen dugu. Hori dela eta, dramatizazioa lantzen denean, gorputza baliosteko eta haren mugimenduaz gozatzeko trebetasunak eskuratzen dira. Horretarako, adierazpen-teknika oinarrikoak erabiltzen, irudimena eta fantasia elikatzeak, abestiak, dantzak, mugimenduak eta adierazpenak interpretatzeko jarrera lantzen da (Heziberri, D237/15, 2016, 24. or.). Aipatzekoa da ere batzuetan dramatizazio terminoari drama ere esaten zaiola (Núñez eta Navarro, 2007).

Badaude ere egoera erreal edo irrealak, narrazioak, poemak edo bestelako testuak eta horiek denak antzerkia bihurtzen ditugu eta horrela ekintza dramatikoak egiten dela defendatzen da (Cervera, 2005). Hainbat autoreen ideiak eta definizioak adierazpenean oinarritzen dira gehien bat hemendik aurrera azalduko den bezala.

Cerverak esaten duen moduan, dramak ekintza esan nahi du. Drama bakoitzak ekintza erreal bat du eta dramatizazioa errepikatzen duena. Kasu batzuetan, egoera historia bat da, beste batzuetan, poesian edo arte lan bat. Normalena zera da, kasu hauetan ekintzak eszenifikatuko dira eta horretarako ekintza gertatzen den toki hori eszenatokia bihurtuko da. Ekintza burutzeko momentuan, ikasleek eskainiko den istoriaren pertsonaien rola hartuko dute eta imaginazioa bultzatzen eszena interpretatuko dute. Pertsonak ume garenetik, sortzeko baliabideak dauzkagu,

imaginazio eta sormenari esker, modu honetan bakoitzak bere mundua ulertzeko aukera duelarik. Hau, dramatizazioan ikusteko aukera paregabea da, dramatizatzen duten momentuan libreak direlako haien ideiak azaleratzeko. Dramatizazio jokuen bidez, esan dugun bezala sortzeko duten aukera hasten da, ahozkoatasuna lantzen da, espresioa, integrazio soziala etab. Haurrek dramatizatzen duten momentuan, haien jakintza eta bizipenetatik hasten dira eta taldean lan egiten dute, amankomunean dituzten egoera edo jakintzak martxan jarritz (Navarro, 2007, 165. or.). Beraz, dramatizazioaren bidez, ikasleak, hainbat sentimendu eta emozioak ikertzen ditu eta horretaz gain, egoera baten aurrean egindakoaren ondorioak zeintzuk izan daitezken ere.

Baina dramatizatzeko orduan benetan garrantzitsuena, egiten duguna bizia, orijinala eta dibertigarria izan behar dela da. Dramatizazioa tresna bat izan behar du bai irakasle zein ikasleentzat. Esan bezala, honi esker, sentimenduak eta emozioak garatzeko konfidantza gehiago izan dezakete, haien imaginazio, mugimendu eta ahotsa seguruago eta sendoago izango dutelako (Cruz, 2014).

Pertsona bakoitzak, sozialki eta emozionalki prozesu bat garatzen du, familiarekin egotetik, pertsona ezberdinekin egotera pasatzen gara, erlazioa berriak egitera. Honekin batera, pertsona bakoitzak autonomia eta independentzia lortzen joaten gara, erlazio berriak sustatzeko eta arazoei aurre egiteko, hala nola, irakasleari besteak zer egin duen esatera joaterakoan, egin nahi duguna ateratzen ez zaigunean eta negarrez hasten garenean, horrelako jarrera guztiak garatzen joaten gara besteen sentimenduak kontuan hartuz. Horregatik esan dezakegu, dramatizazioa oso paper garrantzitsua izan dezakeela aniztasun funtzionala duten ikasleengan. Modu honetan, emozio, egoera eta harreman ezberdinak lantzen joaten direlako. Gainera, egunerokotasuneko errealitatearekin kontaktuan jartzeko aukera dago eta errealitate honetan aurkitu daitezken edozein egoerei aurre egiteko aukera sustatuko da (Sos, Jimenez, Monfort, Peris eta Soler, 2011).

## 2.4 IKASKETA ZERBITZUA ETA DRAMATIZAZIOA

Aurretik aipatu bezala, ikasketa zerbitzua eta dramatizazioa lotura estua dute lan honetan, ikasketa zerbitzuaren helburu batzuk dramatizazioaren bitartez landu daitezkeelako honek dituen baliabideei esker.

Hasteko, ikasketa zerbitzuaren bitartez, Batllek (2014) esan bezala, haurrak haien inguruko aldaketei aurre egiteko gai izan behar dira eta hau lortu ahal izateko hainbat baliabide ezberdina daude, esaterako, Sandovalekin (2006, 10-11. -orr.) bat eginez, dramatizazioak dituen baliabideak mugimenduari aurre egiteko beharrezkoak diren edukiak honako hauek dira:

1- Gorputza bizitzea: hezkuntza aspalditik ahaztuta zuen arloa berreskuratzen eta osasunean onartzen. Ikasleekin dramatizazioa gauzatzean nabarmendu den atala, emozio ezberdinak adieraztea gorputz adierazpenaren bitartez izan da. Modu honetan ikasketa zerbitzuak aukera ematen du edozein egoeren aurrean emozioak agertzen direlako eta hauek adieraztea garrantzitsua delako, bai mugimenduak identifikatzean, hauek bideratzean eta egoerari aurre egitean. Hala nola, espazio itxi batean, egoera ezberdinak simulatzerakoan landu daiteke.

2- Zentzu pertzeptzioa: Pertzeptzian sakontzen den bitartean, zentzumenak esnatzen dira, inguruan dauden elementuak sentitu eta hauen mezua jasotzean munduari buruzko beste ikuspuntu bat lortzen da. Adibide bezala, egoera bat besteen aurrean antzeztu behar denean.

3- Kontzentrazio eta atentzioa: egoera batzuetan egoera bati bakarrik arreta ematen zaio eta kontzentrazioa inguruan dagoen beste edozein egoeretatik aldentzen da, aurreko egoera horretan zentratuz. Honakoa, ariketa guztiek eskatzen dutela esan daiteke.

4- Komunikazioa: ahozkotasunean, begiradan, entzumenean, gorputzean...elementu oro komunikazioan erabiltzen. Arazoari irtenbide bat edo beste ematerako orduan gogoetaren baitan ahozkotasuna erabili behar da, eta hala

dramatizazioan eskulturak sortzeko gorputza, simulazioetan begirada eta ahozkotasuna landu daitezke adibidez.

5- Arauen erabilera: antzerkia garatzerako orduan, arau batzuk jarraitu behar dira baina hauen erabilera malgua izango da, moldagarria. Jardueren gauzatzean gogoeta praktikoa landuko da, horren baitan, komunikazio arauak eta dramatizazio arauak lantzen. Jolasaren bidez, baldintzak jartzerakoan lortu daiteke.

6- Pentsamendu praktikoa eta autonomia: egunerokotasunarekin lotuta dagoelako, egoerei aurre eginez. Ondorioz, praktikoa da eta norberak gauzatu behar duenez autonomia izango da. Gaia, gogoeta praktikaren bidez landuko denez, arazoari irtenbide posibleak bilatuko zaioe eta pentsamendu praktikoa eta autonomia erabiliko dute ikasleek. Hala nola, saioen hasieran eta bukaeran, haien iritzi eta ideiak guztiekin konpartituzkoan.

7- Talde sentipena eta interakzio soziala: talde batean egiten den lana, horretarako pertsona guztiak behar dira adimen interpersonala garatzen delako. Jarduerak gauzatzean ikasle guztiek parte hartzen dute prozesu osoan sorkuntza kolektiboaren bitartez. Adibide bezala, dantza egiterakoan.

8- Egunerokotasuna: egoerarik gabe ez dago dramatizaziorik eta horren baitan datza bizitza. Ikasketa zerbitzua gainera, honen baitan gauzatzen da.

9- Ahozkotasuna: egoera, sentimenduak eta emozioen adierazpena da, soinu eta arnas egokiak erabiliz. Jarduerak gauzatzean, dramatizazioaren bidez gaiaren alderdia adosteko orduan bereziki erabili behar den alderdia, emozioak simulatuz. Hau ere, ariketa guztiekin lortzen da.

Ikusten den bezala dramatizazioa haurrentzako ekintza polit eta dibertigarri bat izan daiteke hainbat esparrutan lantzeko, horregatik ikasketa zerbitzuarekin dramatizazioan lan egitea egokia ikusten da. Gizakiaren gorputzak, ingurunean mugitzeko eta aritzeko beharretaz gain, erabilera funtzionalerako ez diren beste hainbat aukerak ditu. Hortaz, mugimenduak, motrizitaterako baliagarria izateaz gain, era sinboliko batean komunikatzeko baliagarriak dira, mezuak bidaltzeko hain zuzen ere. Gainera, bakoitzaren ingurua, beste kideekin amankomunean dutena jartzeko

aukera ematen du ere. Mugimenduetan, gorputz adierazpena aurki daiteke, keinuen bidez, jarreraren bidez, begiradaren bidez etab. Beraz, gorputz adierazpenaren bidez komunikatzeko hainbat modu daudela esan daiteke. Modu honetan, pertsonak ditugun ezagutzetatik abiatuz, honi esker, sormena landu daiteke (Coteron eta Sanchez, 2010).

Beraz, dramatizazioaren bidez, elkarteko kideekin, mugimenduzko jarduerak egingo ditugun heinean, gorputz adierazpena landuko dugu eta honekin batera ere, ahozkotasuna dramatizatzeko orduan, emozioak noiz eta nola erabili eta autonomia landuko dugu ere. Behin kontzeptuak ezagututa Mila Kolore elkartean martxan jarriko da. Elkarre honetan aniztasun funtzional ezberdinak dituzten ikasleek hartzen dute parte, hala nola, mugitzeko zailtasunak dituztenak, hitz egiteko edo komuniakatzeko zailtasunak dituztenak eta autismoa dutenak ere.

### **3. HELBURUAK**

Lan honen helburu nagusia ikasketa zerbitzuan dramatizazioa lantzea da. Hori aurrera eramateko hainbat dira landuko diren helburuak:

1- Dramatizazioaren bitartez aniztasun funtzionala duten ikasleei, beraien autonomia hobetzeko eta emozioen kudeaketa hobetzeko zerbitzu bat ematea.

2- Aniztasun funtzionala duten ikasleekin, dramatizazioaren bidez, ahozkotasuna eta mugimendua lantzea

3- Ikaskuntza zerbitzuaren bidez, egunerokotasunean ikasitakoa aplikatuz aniztasun funtzionala duten ikasleekin mugimenduak, emozioak eta egoera ezberdinei aurre egitea sustatzea.

4- Dramatizazioaren bidez, berdintasuna, elkar-harremana, adiskidetasuna, elkar-entzutea, aniztasuna... bultzatzea.

5- Mugimenduaren bidez harremanak sendotzeko bestelako bideak ezagutzea.

## **4. METODOA**

### 4.1. TESTUINGURUA

*Mila Kolore* elkarteak, Altsasun, 2009an sortu zen, Sakanan, -behar bereziak zituzten pertsonak biltzeko asmoarekin. Bertako kideak adin eta ezgaitasun desberdinak dituzten pertsonak dira. Elkartek, jarduera ezberdinak prestatzen ditu, haien asteburuetakoa arratsaldeak, dibertigarriak izateko eta elkarrekin pasatzeko asmoarekin, dantza egiten dute, antzerkiak prestatzen dituzte, sukaldaritza etab. Hauekin boluntarioak egoten dira, astebururo 4-5 eta ekintzak aurrera ateratzea posible egiten dute, haiekin dibertitzeaz gain.

Gurasoen aldetik sortu zen ekimena. Izan ere, haien seme-alabek aisialdirako espazio baten beharra zutela nabari zuten eta aukera gertuenak Iruñean zituzten Anfas bezalako elkarteetan. Orduan, maila lokalean antzekoa izango zen elkarte bat sortzea erabaki zuten. Esan bezala, Altsasun sortutakoa da baina Sakanako haurrek parte hartzen dute.

Elkartek duen helburua, behar bereziak dituzten pertsonen egokituta dagoen espazio edo gune bat sortzea da. Horrela haien aisia hainbat jarduera osagarri desberdinekin betetzeko asmoarekin eta modu horretan, haien arteko harreman sarea bermatzea sustatzen da.

Elkartearen zuzendaria Virginia Ruiz de Eguino da eta antolatu eta aurrera eramaten diren ekintza eta jarduera guztien jakinaren gainean dago, hala ere, antolakuntzaz arduratzen dena Irantzu Gonzalez da, elkartearen koordinatzailea. Esan bezala, boluntarioak onartzeaz eta jarduerak prestatzeaz arduratzen dena, hala nola, egunak bideratzeaz arduratzen dena. Virginia, hemen aritzen den haur baten ama da eta lehen aipatu bezala, gurasoen ideia sortu zenean hauen artean zegoena.

Mila kolorek duen metodologiaren harira, normalean asteburuan elkartzen dira elkarte honetan eta hainbat jarduera egiten dira, hala nola, sukaldaritza tailerrak, eskulanak, dantzak, batukadak, mendi irteerak, ikastaroak igerilekua.... Urtean behin dantza ikuskizun bat eskaintzen diete herriko jende guztiari, izan ere elkartearen koordinatzailea herriko dantza eskolako irakaslea da. Udan, Sakanako herrietarako festetara arratsalde pasa joaten dira egun batean. Horretaz gain, urtean bitan edo



hirutan irteera batzuk antolatzen dira, Olloko baserri eskolara, Goldatzen dagoen baserri-etxera etb. Elkartean dabilzanen boluntarioen artean, berdintasuna, elkar-harremana, adiskidetasuna, elkar-entzutea, aniztasuna... transmititu nahi diete haurrei.

Taldekoan dagoen harremana oso giro berezia da, ilusioz betetak daude eta elkarren artean laguntzeko prest, denek dute besteei eskeintzeko zerbait. Elkartean parte-hartzeko gogoak eta ilusio behar da, inolako titulaziorik eskatzen ez duten bitartean. Bertako bolondres izateko, koordinatzailearekin kontaktuan jartzea besterik ez duzu.

Mila koloreri esker, behar bereziak dituzten pertsonei, bereziki Sakana ingurukoek, aisialdirako denbora tartea eskeintzen zaie. Modu berean, gizarteratzeko aukera paregabea ere bada. Eta honek izan duen erantzuna ona izan da. Egia da hasieran boluntario gutxi zeudela, baina denbora igaro ahala, elkarteak ezagutzera eman da eta gutxinaka bai boluntario eta kideen aldetik, handituz joan da.

Bestalde, materialaren inguruan, haietzako gela txiki bat dute zeinetan edozer gauza aurkitu daitekeen. Gelako paretan ispilu bat dute eta horren ondoan, lurrean, alfombra zabal bat. Iskina batean, koltxoneta batzuk dituzte, korroan esertzen direnean gainean jartzeko erabiltzen dituztenak. Gelako beste aldean armairu bat dute, bertan, musikako aparailua, marrazteko materiala, baloiak, banku bat, arropa ezberdinak, mozorroak, birziklatzeko materiala etab.

#### 4.2 PARTE-HARTZAILEAK

Egin dugun esku-hartze parte hartu dute:

- 1. Saioan: 18 gazte, 7 neska eta 11 mutil. Parte-hartu dutenen artean aniztasun funtzionala honakoa izan da: down sindromea, autismoa, hiperaktibitatea eta tgd. Horretaz gain, 5 neska bolondres, 60 urtetik gorakoak.
- 2. Saioan: 17 gazte, 8 neska eta 9 mutil. Parte-hartu dutenen artean aniztasun funtzionala honakoa izan da: down sindromea, autismoa, hiperaktibitatea eta tgd. Horretaz gain, 4 neska bolondres, 60 urtetik gorakoak.
- 3. Saioan: 16 gazte, 8 neska eta 8 mutil. Parte-hartu dutenen artean aniztasun funtzionala honakoa izan da: down sindromea, autismoa, hiperaktibitatea eta tgd. Horretaz gain, 3 neska bolondres 60 urtetik gorako 2 eta 29 urteko bat.

- 4. Saioan: Ez zen egin koronoabirusa zabaltzen hasi zelako.

Hauek, 15-23 urte bitarteko gazteak dira, aniztasun funtzionala dutenak alegia. Guztira 20 lagun elkartzen dira, 8 neska 12 mutil. eta Hauen artean, bi kide daude adin-tarte horretatik aldentzen direnak, urte gehiago dituzutelarik. Hauen artean aurkitzen diren aniztasun funtzional ezberdinen artean, honakoak daude: down sindromea dutenak, autismoa dutenak, hiperaktibitatea dutenak eta tgd (trastorno general del desarrollo) dutena. Honen inguruan ezin dute informazio gehiagorik eman, egiten dituzten jardueretarako beharrezkoak ez direlako. Haien jarreragatik batzuen kasuan oso nabarmena da zer den jakitea, baina beste batzuek kasuan ez. Beraz, honen inguruan ezin dut informazioa gehiagorik eman, ezin dut jakin zenbatek duten gauza bat eta zenbatek bestea. Batzuen kasuan, mugimenduaren aldetik, zailtasun gehiago dituztenak daude eta beste batzuen kasuan, hitz egin edo komunikatzeko zailtasunak dituztenak.

#### 4.3 TRESNAK

Informazioa biltzeko tresna erabiliko da:

- Eguneroko baten bitartez saioak nolakoak izan diren eta saio bakoitzeko helburuei nola egin dieten aurre behatuko da, narrazio etnografiko bat idatziko dut eta bertan, gertatutakoa eta sentitutakoa jasoko da. Prozedura jarraia izango denez, lehenengo saioan gaizki atera den zerbait bigarrenetan zuzentzeko aukera egongo da. Beraz, saioz-saioa erabaki ezberdinak hartu behar badira, hartuko dira.

#### 4.4 PROZEDURA

10 orduko dramatizazio tailer bat eraman behar da aurrera, 4 egunetan banatuta dagoena, baina 3 saio gauzatu dira koarentenan sartu aurretik.

Metodologia: Saioak lau asteburu ezberdinetan banatuak egongo dira, bakoitzak bi ordu eta erdiko iraupena izango dituena. Saio hauek hiru ataletan banatuko dira: beroketa, atal nagusia eta bukaera.

Jarduerak dramatizazioarekin lotura izango dute eta guzti hauek nire laguntzaz egingo dira, ariketa gidatuak izanez.

Lehenengo saioan, gela itxi eta material fisikorik gabe gauzatu dugu. Lehenengo kontaktua izanda elkarteko kideekin, ezagutzeko helburuarekin hainbat joku egingo dira. Hauei ezagutza jolasak deitzen zaiozkio, izenak esaten duen bezala ezagutzeko egiten direlako. Horrelako pare bat egin ostean, mugimenduarekin zerikusia duten ariketak egingo ditugu, zeinetan egoera ezberdinetan murgilduz, dramatizazioaren bidez hauek ebazteko helburuarekin mugituko garen. Horrelako hainbat jarduerekin aritu gara eta bukatzeko lasaitasunera bueltatuz, jarduera bat errepikatuz eta saioaren inguruan hitz egingo dugu.

Bigarren saioan, gela itxi bat eta kartulina, errotulagailuak eta zapiak erabiliko dira. Beroketa moduan eta rolean sartzeko asmoarekin jolas bat egingo da, zeinetan egoera bat azalduko zaie eta haiek egoera horri aurre egin behar diote. Horretarako hainbat arau izango dituzte. Ondoren, aurreko eguneko gehien gustatu zaien ariketa errepikatzeko aukera izango dugu. Hau egin ostean, 4-5 eko taldeetan egongo dira hurrengo ariketak egiteko, hainbat antzezlan eta pertsonaien rolean jartzen direlarik. Honekin bakoitzaren autonomia bultzatzen da eta baliabide ezberdinekin dramatizazioaren bidez, mugimendua eta ahozkotasuna lantzeko aukera ematen du. Bukatzeko, beti bezala, lasaitasunera bueltatzeko ariketa egingo dugu eta saioaren inguruan hitz egingo dugu, gustatu zaien, ez zaiena gustatu, konpartituz eta marraztuz.

Hirugarren saioari begira, gela itxia eta sokak edo zapiak eta aulkiak behar izango ditugu. Hasieran, egoera bat simulatzen duen joku bat egingo dugu baldintza batzuk betez. Ondoren, aurrekoan bezala 4-5eko taldeak egingo ditugu eta keinuen bidez dramatizatzeaz gain, beste hainbat egoera antzeztuko dituzte. Horrelako, taldelana elkarrekin aurrera eramateko aukera inzego dute eta hauek ere mugimenduarekin lotutak daude, hainbat egoerei aurre egiteko helburua dutenak. Bukatzeko, lasaitasunera bueltatzeko jolasa egingo dugu eta saioaren inguruko hausnarketa.

Laugarren saioa, beste saioak bezalakoa izango da baina bukatzeko haiekin merendola moduko bat egingo dugu, azkena izanda, berezi eginez. Honetarako ere, gela itxia beharko dugu eta baloiak. Honen hasieran, baloiekin mugimenduen bidezko jolasak egingo ditugu eta ondoren, egoera ezberdinei aurre egin beharko diegu, Hurreko saioetan erabilitako baliabideei esker, nahi dituztenak erabiltzeko aukera

izango dute. Bukatzeko, saio guztien inguruan hitz egingo dugu eta esan nahi duguna esateko aukera izango dugu.

#### 4.5 ANALISIA

Analisia egiteko orduan hainbat pauso egin behar izan ditut. Hasteko, saio bakoitzaren egunerokoa egin dut narrazio etnografikoaren hainbat puntu jarraitzen nuen bitartean. Egunerokoa egitea azken finean, saioetan jasotzen den informazioarekin, zer egin dugun eta gauzak nola atera diren kontatzea da. Horretaz gain, ekintza bakoitzarekin sentitu duguna azaltzea eta lekuaren inguruko informazioa txertatzea.

Egunerokoa eginda dagoenean, analisiari hasiera ematen zaio, sistematizazioa eginez eta horretarako ikerketa kualitatiboan oinarritu behar da. Ikerketa lanean hiru fase bereizten dira:

- Informazioa biltzea: Horretarako, aurretik aipatutako egunerokoa egin dut eta saioetan egindako argazki edo bideo ezberdinak erabili.
- Informazioa antolatu eta ordenatu: Jasotako informazio guztia antolatzeko, lehenik eta behin informazioa hori prestatu behar da. Egunerokoaren paragrafo bakoitzari kode bat jarri behar zaio, zein saio eta egunekoa den jakiteko.

Ondoren, informazioa sailkatu, laburtu eta elkartu beharko da, horretarako kategoriak jarri behar dira. Hori egiteko, ideiak sailkatu eta esaldi bakoitza kategoria batean sartu behar da.

- Ondoren informazio eta ideia guztiak berrantolatu eta ideiak elkartu behar badira, elkartu. Ondoren, guzti horien interpretazioa egin behar da, emaitzak egin ahal izateko.

Prozesu hori egin ostean, emaitzak egiten dira. Ez da prozesu zaila baina denborarekin hartu beharrekoa eta hainbat pauso egin behar dira emaitzetara iritsi aurretik.

## **5. EMAITZAK**

Emaitzak antolatuak izan dira sistema kategoriala jarraituta, hala planifikazioa nola gin den, zer nolako harremanak sortu diren eta zer nolako sentipenak bizi diren narratuko dira besteak beste.

**1.taula: analisia egiteko erabili den sistema kategoriala**

<i><b>Dimentsioak</b></i>	<i><b>Kategoriak</b></i>	<i><b>Azpikategoriak</b></i>	<i><b>Frekuentzia</b></i>
Planifikazioa	Partaideak		3
	Aspektu metodologikoak	diseinua	2
		Espazio eta materiala	4
		arauak	1
	Proposamen didaktikoa	Zer planteatu dugun	9
		Ikasleen erantzunak	6
		balorazioak	1
	Faktore erraztatzaileak		1
Faktore oztopatzaileak		3	
Harremanak	Lidergo motak		1
	Irakasleekiko jarrera		2
	Ikasleen arteko harremanak		2
	rolak		
Sentipenak	Kezkak eta zalantzak		8
	beldurrak		2
	erronkak		1
	hausnarketak		4
Esperientziak eta anekdotak			
Inzidente kritikoak	gertaera		1
	Hartutako erabakiak		1

### **5.1. Planifikazioa**

#### **5.1.1. Partaideak**

Elkarteko kideak 20 dira, 8 neska eta 12 mutilez osatua. Saio guztietan ez dira guztiak egon, batzuetara joan ziren lagunen batz bestekoa kontuan hartuta, 17 haurrak izan ziren eta batz bestek 4 bolondresak osatzen dituzten, egun batean 5 joan ziren eta beste batean 3.

Saio honetan, pasa den saioko aurpegi berdinak ikusi nituen gehi bi berri. Beraz, egun honetan, 17 izan ziren, 4 boluntario eta ni. (2. Saioa\_2020-02-28)

Kide hoiaren artean, aniztasun funtzional ezberdinak aurkitzen dira, hala nola, down sindromea dutenak, autismoa, hiperaktibitatea eta tgd-a. Honetaz gain, haien profilaria begira, oso maitakorrak diren pertsonak dira baina ariketak edo jolasak azaltzeko orduan modu errazago eta sinpleagoan azaldu behar dira haiek informazioa ongi ulertzen dezaten. Bolondresen artean, ia denak adin berdinekoak ziren, 50 bat urte ingurukoak, herriko perfil ezberdinak, energia asko zutenak. Batzuen kasuetan, kideen bizilagun, ezagunak, izebak ziren. Gazteen adinak, 15-23 urte bitartekoak ziren, gehienak adin txikikoak zirela.

## **5.1.2. Aspektu metodologikoak**

### ***5.1.2.1 Diseinua***

Diseinuari dagokionez, bi ordu eta erdiko 4 saioa prestatu nituen eta kasu batzuetan, lehenengo saioan alegia, inprobisatu behar izan nuen. Saioak korroa eserita hasi eta bukatzen ziren. Hasieran izenak esan eta errepikatzen genituen, eta aurreko saioan gustokoena zer izan zen berroritu. Hiru zatitan banatu nituen saio bakoitza, esaterako, beroketa zatia, zati nagusia eta bukaerakoa. Esan beharra dago ez dela zertan horrela egin behar baina modu ordenatuagoa iruditzen zitzaidanez, hori egitea erabaki nuen. Planteatutako jardueren harira, guztiak mugimenduzko jarduerak izan dira, zeinetan, elkarlana, mugimendua, dramatizazioa etab lantzen ziren.

Aipatu beharreko beste gauza bat, nire planteamendua, bi ordu eta erdiko saio baterako prestatuta zegoen baina denbora soberan geratu zitzaidan, azkarregi egin zutelako edo lehenengo eguna izanda ere, nire urduritasunarekin planteatu nuena, baina azkarrago egin nuelako. (1. Saioa\_2020-02-22)

Argi dago, zerbait prestatzerako orduan, modu batean egingo dela pentsatzen dugula baina prestatutako hori aurrera eramaten den momentuan, denbora-tarteak betetzen ez direla konturatzen gara. Egoera hauei aurre egiteko modurik egokiena, hainbat ekintza

prest izatea izango litzake eta zerrenda horretatik tira egin. Askotan ere, gauzarik sinpleena, dantzetzea adibidez, dibertitzeko eta denbora pasatzeko modu polit eta dibertigarria izan daiteke. Beraz, ez da zerbait konplexua egitera jo behar soilik haiek ongi pasatzeko eta gustoko duten gauzetan oinarritu. Gainera, saio batean gertatu zen bezala, gustoko zuten jarduera bat behin eta berriz errepikatu nahi izan zuten eta horrela egin genuen.

### ***5.1.2.2. Espazio eta materialak:***

Espazioaren aldetik lehenengo saioan gela txiki batean aurkitu ginen eta ariketak egiteko ez zen oso aproposa baina hurrengo saioetarako gela handiago bat izan genuen, koordinatzailea jarduerak zeintzuk ziren ikusita espazio txikia zela ikusi zuelako eta beste gela bat proposatzerakoan mesedea egiteko eskatu niolako. Gainera, behar adina material zegoen, prestatuta zeuden ariketetarako baita beste zerbait egiteko ere.

Nahiz eta gela txikia izan, materiala ondo gordeta zuten espazio gehiago egoteko baina hala ere, berehala konturatu nintzen jarduerak aurrera eramateko espazioa mugatuegia zela. Azken finean egin behar genituen jarduera guztiak espazioan mugitzekoak ziren, bakoitzak bere tokia behar zuen bitartean. Adibidez: banaka gela osotik mugitzen ziren bitartean, nik eskainitako egoera bati aurre egin behar zioten mugimenduen bidez. (1. Saioa\_2020-02-22)

Hasieratik gela handia izan bagenu, jarduerak hobeto ateratzeko aukera gehiago egongo ziren. Ekintzak aurrera eramateko eta kide bakoitzak bere espazioa izateko espazio zabal eta ireki bat izatea eta material ezberdinak izatea ezinbestekoa da. Gehien bat mugimenduarekin zerikusia duten jarduerari begira, gure kasua zen bezala, espazioa txikia izanda, haien artean oztopatu dira. Horregatik, zabala bada, mugitzeko askatasuna dugu, espresatzeko, nahi ditugun mugimendu askeak egiteko etab.

### **5.1.2.3. Arauak:**

Saioaren hasieran arau batzuk finkatu dira guztion artean, jarduerak modu hobeko batean aurrera eramateko eta horien artean honako hauek ditugu: \* Guztien arteko errespetua \* Poliki ibiltzea, minik ez hartzeko \* Ongi pasatzea.

Haien arteko errespetua eta arauak oso barneratuak zituztela nabaria zen, adibidez, norbait hitz egiten zegoen bitartean eta beste bat hasten bazen, baten batek berehala esaten zuen “orain ez da zure txanda, gero hitz egingo duzu” (*Mila kolore elkartea\_2020-02-22*).

Beraz, hiru arau horiekin hasia erabaki nuen eta saioan zehar gehiago jartzeko beharra ikusiz gero, saio bukaeran gogoraraziko genituen. Baina ez zen beharrezkoa izan. (*1. Saioa\_2020-02-22*)

Planteatutako zerbait aurrera eraman ahal izateko, guztion artean arau batzuk finkatzea ezin bestekoa izan da. Batzuek oso barneratuak dituzte ohikoenak diren arauak baina beste batzuek ez hain beste, horregatik birgogortzea hauek zeintzuk diren ez da gaizki etorri.

## **5.1.3. Proposamen didaktikoa nolako izan den**

### **5.1.3.1. Zer planteatu dugun:**

Planteamenduari buruz hitz egiterakoan, saio bakoitzean egin izan ditugun jarduerari buruz hitz egin dugu, hauek zeintzuk izan diren eta nola egin ditugun azalduz. Saio bakoitzerako jarduera ezberdinak daude planteaturik eta saio bakoitzean ere hainbat jarduera. Hala nola, ezagutza jolasak, imitazio jarduerak, mugimenduekin zerikusia dutenak, harreman jolasak etab. Hauek modu ordenatu batean egiten ditugularik.

Hau egin eta gero, orekari buruzko jolas batekin hasi genuen saioa. Lurreko espazioa itsasoan dagoen egur zati bat zela simulatu genuen eta ezin ginela erori. Berehala hasi ziren “eta hanka baten gainean jartzen bagara?” , edo “poliki poliki ibili behar gara ez erortzeko” eta une horretan jolasean murgildu ginen. Lehengo bolondresak, kideak zirikatzen zituen “kontuz, izena, uretara eroriko zarela”, “ai- ai, izena, itsasontzia dator zure aurretik”, (*Mila kolore elkartea, kide bat\_2020-03-07*)



Denek barre egiten zuten, oso harreman polita zutela nabarmendu nuen. Niregana gerturatu zen boluntario bat eta horrek esan zidan “Ekhiñe iruditzen zaizu emozio gehiago jartzen badiogu eta espazioa txikitzen badugu, haiek estuago sentitzeko?” (*Mila kolore elkartea, bolondres bat\_2020-03-07*)

Baietz esan nion eta horrelakoak bururatzen bazitzaizkion lasai asko esateko, azken finean, astebururo hor daudenak haiek direlako. Oso momentu “eroa” izan zen, ez zuten lehen bezain beste tokirik mugitzeko eta haien artean oztopatzen ziren baina hala ere, barrezka zeuden (*3. Saioa\_2020-03-07*).

Planifikatzen dena ez du esan nahi ongi dagoenik edopentsatuta izan den bezala atera behar denik. Batzuetan, zerbait prestatzen dugu eta martxa jartzen dugun momentuan, hainbat gauza aldatu behar direla ikus dezakegu, beste modu batean planteatu daitekela, beste modu batean egin daitekeela. Askotan, esandako hau, ikasleek erakusten dute, jolasa edo ariketa, haien moduan eginez.

#### **5.1.3.2. Zer erantzun duten ikasleek:**

Prestatutako esku-hartzea Mila koloreko kirdeek oso modu positiboan hartu zuten. Lehenengo momentutik haien interesa, gogoak, motibazioa, maitasuna eta jarrera egokia azaldu zidaten. Jarduera bakoitza egiterakoan nabaria zen gogotsu egiten zutela eta erabat sartzen zirela tokatzen zitzaien rolean. Haiek ere sormena erabiltzen, ariketak haien moduan moldatzen zituzten (“tximuak gara” eta denek tximua izango balira bezala hasten ziren). Saio guztietan gogo berdinekin jarduten ziren. Aipatzekoa da ere, batzuen kasuan, autismoa zutelako, jarduera batzuk zailagoak zirela egiteko eta beste batzuetan haien kabuz ibili zirela, parte-hartu gabe.

Jardueren aurrean primeran erantzun zuten, gogo askorekin ikusi nituen eta oso parte-hartzaileak. Jakina da, batzuen mugitzeko arazo gehiago zituztela, beste batzuek hitz egiteko, baina hala ere, gustura ibili zirela nabaritu nuen. Jarduera batzuk egiterakoan, gidatuak zirenean, gatazka nik ezartzen nienean edo zer interpretatu behar zuten esaten nienean, jardueran

eskatzen niena egiten zuten baina libre uzten nienean, haien imajinazioarekin, beste jarduera interesgarriak sortzen zituzten. Hala nola, espazioan zehar nik esaten nienean zer egin, globoak ziztatu, haien ideiak egiteko orduan, “tximuak gara” eta denek tximua izango balira bezala hasten ziren. Nahiz eta hori ez izan planteatuta nuena, hain gustura ikusten nituen, ez nintzela gai haien ilusio horrekin bukatzeko. Izugarrizko giro ona eta polita sortu zen lau pareta txiki haien artean (1. Saioa\_2020-02-22).

Aniztasun funtzional ezberdinak egonda, jarduera batzuetan zailagoa zen autismoa dutenek parte-hartzea. Ez da erraza izaten aniztasun ezberdinetarako ekintza edo jarduera berdina egitea, izan ere, batzuk erraztasun handiagorekin egingo dutelako eta beste batzuek ordea, zailtasunak izango dituztelako. Ulermen mailak ere, honetan oztopoa izan daiteke edo azaltzen duenak modu konplexuan egiten duelako ere. Horregatik egokiena, denek parte-hartzeko jarduera errazak prestatzea da eta ahal izanez gero bolondres edo zaintzaileen artean banaketak egin eta jarduera berdina egitea baina zailtasun edo erraztasun maila ezberdinekin.

### **5.1.3.3. Balorazioak:**

Balorazioa egiteko, saioen bukaerako tartetxoa erabiltzen genuen, hemen, jarduera bakoitzarekin izan duten sentazioak eta bizipenak azaleratuz eta zein gustatu zaien eta zein ez azalduz. Adibidez bezala, (“imitatzea”, “ eso que hacemos de las películas”) izan daitezke. Saioak ere, balorazioaren arabera hasten genituen, gehien guztatutako jarduera zein izan zen birgogoratzen.

Behin dantza eginda, korroan eseri ginen eta aurreko saiotik gogoratzen zutena edo gehien gustatu zitzaiena zer izan zen galdetu nien. eta berehala “imitatzea”, “ eso que hacemos de las películas” (Mila kolore elkartea, bi kide\_2020-02-28) esan zuten, banekien hori esango zutela horregatik, taldeka jarri ginen eta imitazioen bi ronda egin genituen.

Ikasleen gustu eta beharretatik abiatu behar gara esku-hartze bat egiterakoan edota zerbitzu bat emateko. Ez da erraza izaten hau aurrera eramatea ikasleak alde aurretik ezagutzen ez baditugu. Horretarako, lehenengo saioan ezagutza jolasak egin daitezke

modu honetan, ikasletara gerturatzen saiatzeko eta haien gustuak zeintzuk diren ezagutzen. Hortik abiatuz, hurrengo saioak prestatzeko.

#### **5.1.4. Faktore erraztatzaileak:**

Kideei esker eta bolondresei esker eraman nituen aurrera saioak. Haien gogo eta ilusiorik gabe zaila izango baizen. Eta bolondresen ere, izugarrizko energia eta positibotasuna erakutsi zuten.

Proposamena aurrera eramateko faktore erraztatzaileak, gehien bat, haien gogo eta ilusioa izan dela uste dut. Gero ere, bolondresen parte-hartzea asko lagundu du eta gelan aurkitu dudana materiala. *(1. Saioa\_2020-02-22)*

Ikasleen ilusio eta gogorik gabe esku-hartzea aurrera eramatea ezinezkoa izango zen, hauek direlako zerbitzua posible egiten dutenak. Horregatik da hain garrantzitsua ikasleen motibazioa egokia lantzea. Era berean, bolondresen jarrerakere erabateko garrantzia du, izan ere, haien energia eta positibotasuna negatibo bihurtuko balitz haurren motibazioa ez zen orain izan dena izango eta esan bezala, ez zen berdin aterako.

#### **5.1.5. Faktore oztopatzaileak:**

Saioetan aurkitutako faktore oztopatzaileak, hasieran espazio falta izan zen, ez genuelako mugitzeko hainbeste espaziorik izan. Horretaz gain, covid-19 zela eta kideak arrisku faktore zirenez, ezin izan nuen nire esku-hartzea pentsatuta eta gustatuko litzaidaken bezala bukatu.

Bestalde, oztopatzaile bezala, espazioa izan dela esango nuke. Gaurko egunean, prestatuta nuena oso azkar egin dudanez edo espero nuena baino astiroago joan denez, inprobisatzea zein garrantzitsua den ikasi dudala esango nuke, egoera oztopatzaileen aurrean, espazioaren falta adibidez, lasaitasuna mantentzen ere ikasi dut. *(1. Saioa\_2020-02-22)*

Aurretik aipatu dudan bezala, espazio etgoki bat izatea oso garrantzitsua da mugimenduak egin ahal izateko. Espazioa txikia izanda eta jende asko egonda, agobio sentsazioa egon daiteke eta lana gustora ez egitea gertatu daiteke. Horretaz gain ere, Covid-19a izanda, saioak bukatzeko arazoak egon dira eta modu egoki batean bukatzeko aukera zapuztu egin zen.

## **5.2. Nolakoak izan dira taldean eman diren harremanak?**

### **5.2.1. Lidergo mota:**

Oso talde polita eta aberatsa dela esan daiteke. Guztiek berdintasunean jokatzeko zuten eta gainera, haien artean elkar laguntzeko zuten. Nabarmena zen haien artean zaintzeko zuten konpromisoa eta norbaiti rolean sartzea kostatuz gero, berehala animatzen zutela. Ez dago haien arteko leialtasunik, esan bezala, berdintasun maila berean aritzen baitira.

Gainera, aurreko saioan ikusi nuen bezala, hontan ere elkar laguntzeko zirela nabarmena zen “kontuz, kokodrilo izango zarela, etorri zapi honetara ni mugituko naiz” horrelakoak entzuteak ez du parekorik. Ez zen kasualitatea izan ikusi nuena, benetan une guztietan laguntzeko prest daudela, maitasuna eskaintzeko, besarkadak emateko, oso esker oneko eta bihotz handiko pertsonak dira. Ez dute haien artean konpetitzen, ez dago lidergotasunik, denak maila berdinean daude eta ongi barneratuta dute. (2. Saioa\_2020-02-28)

Berdintasunean ikasteak eta irakasteak oso balore handia transmititzea dela esango nuke. Horrelako baloreak izatea, oso aberasgarria da, laguntasuna, ongizatea, laguntza, berdintasuna, motibazioa, ilusioa, gogoak etab., azaltzen direlako eta haiekin daudenei positibotasun hori transmititzen dietelako. Zure lana gogotsu egiteko motibazioa eskaintzen dute eta denok maila berdinean jokatzeko dutela irakasten dute. Elkarbanatzeko zerbitzua izan daiteke, bi aldetatik, bai kideengatik eta bai nirengatik ikasi-irakaste prozesua baita.

### **5.2.2. Irakasleekiko jarrerak:**

Aurretik aipatu dudanez, irakasleekiko jarrerak oso onak ziren, gogotsu eta motibazioarekin ibiltzen zirelako. Hemen aipagarria ikusten dut, bolondresen lana. Zein lan polita eta lan zaila egiten duten, beraiek nahi dutelako eta Milako koloreko kideei asteburu dibertigarri eta ezberdinak egiten laguntzeagatik. Haiek gabe, elkarteak ez zen bizirik egongo eta egunero, ilusiarekin, gogoarekin eta motibazioarekin joaten dira. Proposatutako jardueretan haiek ere rolean sartzen ziren eta gainera, ez zuten autoritaterik azaleratzen. Haiek ere maila berdintasunean jokatzeko zuten guztiak.

Bestalde, gurekin, 5 bolondres zeuden, saio ezberdinetan bolondresen artean aldaketak egon dira. Hauen rola, jardueretan erabat murgiltzea izan zen, denok geunden maila berdinean kokatuak, haien parte-hartze aktiboa eskertzekoa izan zen. Lehenengo momentutik ere, oso modu onean hartu ninduten eta lasaitasuna transmititu nahi zidaten. Haiekin ere, oso gustura ibili nintzen, erakunde honetan betetzen duten papera, eskertzekoa da. (1. Saioa\_2020-02-22)

Bolondresek hartzen duten rola kideentzako ispilu bat da. Haien jokatzeko modua, kideek eredu bezala hartzen dutelako eta gogoak transmititzen dietelako. Gainera, jende berria hain modu onean hartuz gero, lan egitea erosoagoa izaten da.

### **5.2.3. Ikasleen artean eman diren harremanak:**

Ikasleen artean duten harremana oso estua, aberatsa eta polita da. Haiekin egun batean egoterakoan, berehala haien parte sentiarazten zaituzte eta momentuan bertan zein esker onekoak diren nabarmentzen da. Oso giro ederra dute haien artean, laguntasuna, maitasuna, elkarlana, laguntza, ongi sentiaraztea, giro ona, poztasuna, motibazioa etab., adierazten dute.

Gainera, taldean oinarrituta, haien arteko harremana oso aberatsa dela esango nuke. Hori da, une oro irribarrearekin daude eta haien arteko laguntza nabarmentzen da,, Errespetua ere bertan dago, ez dago

lidergotasunik haien artean, denak berdinak ikusten direlako. Haien artean duten giro eder hori sentitu eta ikusteko, haiekin une batez egon behar da eta berehala murgiltzen zaituzte giro horretan. Izugarria da. Saio bat behar izan nuen haien partaide sentitzeko, berehala eskerrak ematen hasi ziren, besarkada ematen, soilik aurpegietan ikusten nizkien irribarreak nahikoa ziren jakiteko zein eskertuak zeuden. “Oso ondo pasa dugu Ekhiñe, hurrengoan berriz, baina dantza gehiago egin behar dugu” (*Mila kolore elkarte, kide bat\_2020-02-22*) eta denak barrez lehertzen ziren (*1. Saioa\_2020-02-22*).

Horrelako taldeek lanean jarraitzeko gogoia transmititzen dute. Errespetuan oinarritutako elkarte baten oinarri dira. Aniztasun funtzional ezberdinen arteko errespetu eta berdintasuna erakusten dute, haien arteko elkarbizitza nolakoa den ikusita. Haien artean, gizarteko partaide bezala sentitzen diren momentuak izaten dituzte, arazorik ez balute bezala eta haien mundu txiki horretan murgiltzeko erraztasuna dutela erakusten.

### **5.3. Sentipenak**

#### **5.3.1. Kezkak eta zalantzak:**

Urduritasuna saio guztietan zegoen presente, ongi aterako ote zen, gaizki, gustora egongo ote ziren ala ez ote ziren egongo eta horrelakoak burutik pasatzen zitzaizkidan bitartean. Lehenengo eguneko urduritasuna ez zen izan hurrengo saioaetakoa bezalakoa, izan ere, lehenengo saioan ez nuen inor ezagutzen, dena berria zen eta jendea ere ez nuen ezagutzen. Hurrengo saioetako urduritasuna txikiagoa zen, paragrafoaren hasieran aipatutakoari erreferentzia egiten dion bezala. Denbora ere kezka handi bat zen, faltako zen edo soberan geratuko zenaren ezjakintasunean. Neska bolondres gazte batek ere urduri xamar jarri ninduen, hasieran ez nekielako nondik nora ibiltzen zen.

Saio hau, sentsazioz beteta utzi ninduen, azaldu berri dudanagatik, momentu batzuetan txikia ,sentitzen nintzelako bolondresen aurrean, denbora ere soberan izan nuelako eta ez dakit zergatik baina ez nintzen oso ongi atera.

Bolondresek esandako positiboa izan zen, oso ongi pasa zutela eta eskerrak eman zizkidaten ere eta ikasleak ere, beste saioetan bezala oso pozik ikusten nituen baina ez dakit zer izan zen nire sentsazioa ez zela ona izan (3. *Saioa\_2020-03-07*).

Zerbait hasteko momentua denean, errutina moduko bat izan arte gizakiaren jarrerarik normalena urduritasunak arakatzen gaituenean ematen da. Oso ohikoa izaten da urduri sentitzea eta egin beharreakoren aurrean zenbait zalantza eta kezka izatea. Gehien bat pertsona bakoitzak haren buruarekiko duen segurtasuna kontuan hartuta. Gainera, lanean zauden horretan denbora gehiago daraman pertsonen aurrean ere, segurtasun txikiagoa izaten dugu askotan. Haiek lana nola egiten duten eta zure gustatuko zaien esperoan zaudelarik.

### **5.3.2. Beldurrak:**

Nabaritu dudan beldurrik sakonena, “nire gainetik” dauden pertsonen egindako lanaren inguruan izango duten pentsamenduaren ingurukoa da. Nire lana haiena baino okerragoa dela uste dut eta norbait nire lana baloratzen dagoenean, erabateko beldurra sartzen zait gorputzean.

Momentu horretan, egoeraren aurrean txikitu nintzela sentitu nuen, berak gidatu zuelako dantzarako une hori. Baina buruari buelta eman nion eta laguntzeko nahian egin zuela ikusi nuen. Arratsaldea aurrera joaten zen bitartean, bolondres horren izaera nolakoa zen ikusteko aukera izan nuen, eta argi nuen laguntzeko izan zela. Oso bromazalea zen, energia handikoa, momentu guztian saltoka eta aktibitatean zegoen eta niri lasai egoteko esaten zidan, taldea oso esker onekoa zela (3. *Saioa\_2020-03-07*).

Pertsonen beldurrak itsutu egiten du eta gauzak modu negatiboan ikusten dira. Beste pertsonak zukanako duten inpresioa zein izango den pentsatzen duzun bitartean, urduritasunak eta beldurrak oztopo handiak direla esan daiteke.

### 5.3.3. Hausnarketak:

Honekin ateratzen dudan hausnarketarik sakonena da, nire buruarekiko zein espektatiba gutxi edo zein gutxi baloratzen dudan egiten dudan lana. Behintzak elkarte honekin ikasi dudana, zer nolako esker onekoak izan diren, haiekin jarduera batzuk eta saioa batzuk egiterako orduan. Horretaz gain, batzuetan prestatuta duguna eta egin nahi duguna ez dela espero bezala ateratzen baina horrek ez duela esan nahi gaizki atera denik, baizik eta, haien gustuen arabera moldatu daitekeela gauzak edo haiei zer egin eta zer ez erabakitzen utzi behar diegula.

Honekin, ikasi nuena zera da, gauzak urduritasunez hartzen ditudanean, gaizki ateratzen zaizkidala . Azkenean, ikasleekin, egunerokotasunean bizi behar dela, hori da, askotan prestatuta dagoena ez dela uste bezala ateratzen eta inprobisazioak ere garrantzi asko duela une horietan. Gainera, haiek ere oso ideia onak eta gauza polit eta interesgarriak sortzen dituzte (1. Saioa\_2020-02-22).

Batzuetan gauzak ez dira batek pentsatzen duen bezala ateratzen, horrelako kasuetan ez diogu gure buruari mezu negatiboak bidaltzen utzi behar. Egoera zein den aztertu behar da eta ondoren hori kontrolatzen saiatu. Horretarako, askotan erabiltzen den inprobisazioei esker egoera salbatu dezakegu. Egoera ezberdinetara eta gure egunerokotasunean bizitzera ohitu behar gara, momentuan dagoenari aurre egiteko.

### 5.4. Zer nolako inzidente kritikoak eman diren:

Saioak modu batean prestatuta zeuden, denborarekin kontrolatuta, alegia eta saioak aurrera joan ziren heinean, konturatu nintzen, pentsatuta nuena baino azkarrago egiten genituela gauza guztiak, beraz, inzidente kritiko bezala, denbora soberan geratzen zitzaidala izan zen. Horretarako, inprobisazioaren garrantzia ikusi nuen eta denbora hutsune horiek momentuko gauzekin bete behar nituela ikasi nuen. Horren adibide bezala, “orquestra zuzendaria”ren jolasa izan daiteke edo dantza egitea.

Inprobisazio txiki bat egin nuen beste jarduera bat sartuz, “orquestra zuzendaria”-rena zena eta gelan ibiltzen ginen bitartean, kide bat gelatik



ateratzen zen momentuan, taldeko batek zuzendariaren rola hartzen zuen, beste denok musikariak ginen bitartean. Musikariek zuzendaria imitatu behar genuen eta kanpoan zegoen kideak, zuzendaria nor zen asmatu behar zuen. Denek izan nahi zuten zuzendari eta kidea sartzen zen momentuan, bakoitzak nahi zuena egiten hasten zen. Jarduera hau ez zitzaigun oso ongi atera baina haiek ere ongi pasa zuten bakoitza zuzendari rolean sartuta. (1. Saioa\_2020-02-22).

Saioen denbora kontrolatua eta zehatza izaten da prestatzen dugunaren arabera baina egoera batzuetan, pentsatua zegoena baino azkarrago edo mantsoago egiten dira gauzak. Lehenengo saioaren kasuan alegia, espazio falta gauzak azkarrago egitearen arrazoia izan zen. Horren aurrean, beste zenbait ekintza egiteko aukera izaten da edota kideei gustoko duten zerbait egiteko aukera eman.

## **6. EZTABAIDA ETA ONDORIOAK**

Egunerokoa aztertuta, ikus dezakegu, partaideen aldetik, bakoitzak duen aniztasun funtzionala kontuan hartuta eta haien profilari begira, oso maitakorrak azaldu diren pertsonak direla baina ariketak edo jolasak azaltzerako orduan modu errazago eta sinpleagoan azaldu behar izan dela haiek informazioa ongi uler zezaten. Honekin, Corteron-ek eta Sanchez-ek (2010) adierazten duten bezala, gorputza adierazpenaren bidez komunikatzeko hainbat modu daude eta horrela partaideek dituzten ezagutzetatik abiatuz, sormena lantzeko aukera izan dute. Honetaz gain, Sos-ek, Jimenez-ek, Monfortek, Perisek eta Solerrek (2011) esaten duten moduan, pertsona bakoitzak sozialki eta emozionalki prozesu bat garatzen du eta honekin batera, autonomia eta independentzia lortzen joaten dira, arazoei aurre egiteko eta harreman berriak lantzeko. Horregatik, esan dezakegu, partaide hauentzako mesedagarria izan daitekeela dramatizazioaren bidez lanketa ezberdinak egitea. Modu horretan, egunerokotasuneko egoera ezberdinei aurre egiteko aukera ematen zaie.

Bestalde, planteatu dugunari aurre egiteko momentuan, ezagutza jolasak, imitazio jarduerak, mugimenduarekin zerikusia dutenak, harreman jolasak eta abar, eramán ditugu aurrera. Hori posible izateko, Batlle-k (2014) aipatzen duen moduan,

zerbitzua ematen dugun momentuan oso argi izan behar dugu eman beharreko pausoak zeintzuk izango diren. Beraz, honi erreparatuz, saioen prestaketa egon da, ekintzak zer motatakoan izan diren aipatu dut eta ebaluazio bat egin dugu saioa bakoitzaren bukaeran.

Egunerokoan aipatutako beste ideia baten inguruan, ikasleek jardueren aurrean zer nolako erantzuna izan duten aipatzen da. Izan ere lehenengo momentutik, eskaini zaien zerbitzuari oso modu egokian erantzun dietela esan daiteke. Nabaria izan da, honen aurrean izan duten interesa, motibazioa, gogoak, maitasuna eta jarrera. Horregatik, Puig-ek, Gijon-ek, Martin-ek eta Serrano-k (2011) defendatzen zuten ideia kontuan hartuta, ikasleek niri erakutsitako baloreak izan dituzte. Autoreek esaten zuten, ikasleek hainbat balore eskuratzeko gai izango zirela praktika horien bidez, baina, kasu honetan, argi dago, balore horiek landuta dituztela eta niri transmititu dizkidatela. Hemen ere, lotura egingo nuke taldekideen artean egon diren harremanekin, esan bezala, hain barneratuak dituzten baloreei esker, haien artean berdintasunean jokatzeko dute, liderrik ez dagoela kontuan hartuta, bai kideek bai bolondresek ere. Barroso-k eta Fontecha-k (1999) ere, ideia hori defendatzen dute, honi esker, irudimena, sormena, motibazioa eta abar lantzen direla.

Irakasleek edo bolondresek honen aurrean izandako jarrera aipagarria izan dela esan dezaket. Lehenengo momentutik gogotsu eta motibazioarekin ibili dira, gogo eta motibazioa hori, kideei transmititzen zieten bitartean. Azken finean, motibazioak, lan pertsonala bultzatzen du baina baita, lan soziala. Izan ere, Vaca-k (2000) defendatzen duenez, banaka lantzen diren ahalmenak, ondoren, beste pertsonekin lantzen dira. Bolondresek ere, egindako jardueretan gogotsu parte hartzen badute, gazteak ere gogoekin arituko dira.

Egunerokoan balorazioari begiratzen badiogu, oinarri bezala, bizipen ezberdinak kontuan hartuko nituzke eta Cruz-en (2014) ideiarearekin bat egiten dudala esan dezaket. Izan ere, balorazioa egin ahal izateko, gure burua, sentitzen duguna adierazi beharrean ikusten dugu, beraz, saioetan sortzen den konfidantzazko une horretan, bizi izandako sentimenduak, emozioak eta bizipenak zeintzuk izan diren jakiteko segurtasuna dugu.

Azkenik, esango nuke, zerbitzua aurrera eramateko momentuan sortu daitezkeen kezka, zalantza eta beldurrak, honakoak izan daitezkeela: urduritasuna, egindako lana gaizki baloratua izango denaren beldurra, ongi aterako den ala ez pentsatzea, hemendik aurrera gure egunerokotasunean bizi izango dugun zerbait dela eta klaseak aurrera eramaten ditugun momentutik, gurasoekin egoten garen momentua arte izango den zerbait dela. Horregatik, Puig-ek, Battle-k, Bosch-ek eta Palos-ek (2007) aipatzen duten moduan, komunitateari zerbitzua egiteko gai garenez, baliabide eta estrategia ezberdinak ezarri behar ditugu eta beste kideei laguntzeko gai izan, errealitatearekin erabateko kontaktua dugulako.

### **Markatutako helburuak bete diren ala ez**

Zerbitzu bat egiterakoan, lanaren hasieran ezarritako helburuak bete diren ala ez konprobatzeko aukera izan behar dugu. Kasu honetan, helburuak gehienak bete direla esango nuke. Hasteko, esan beharra dut, dramatizazioan oinarrituta eraman direla jarduera guztiak eta hortaz, dramatizazioaren lanketa on bat egin dela esango nuke.

Lehenengo helburua kontuan hartzen badugu, aniztasun funtzionala duten kideei, autonomia hobetzeko eta emozioen kudeaketa hobetzeko zerbitzua ematen zaie. Egindako ekintzekin, bakoitzaren autonomia eta emozioak landu ditugu, baina autismoa duten kideen artean, hau lortzea oso zaila zen. Autonomia lantzen hasi direla, egoera bat imitatzeko momentuan, bakoitzak estrategia eta baliabide ezberdinak erabiliz egin dutenean ikusi dut.

Bigarren helburuarekin, dramatizazioaren bidez, ahozkoasuna eta mugimendua landu beharra zegoen. Lehenengo helburuan bezala, autismoa dutenen artean, ahozkoasuna lortzea ezinezkoa egon zait. Baina, gainontzekoek, ahozkoasuna lantzeko inolako zailtasunik gabe ibili dira. Kasu honetan ere, mugimenduan oinarrituta, guztiok mugimenduen bidez egin edo esan nahi zutena adierazteko gai izan dira.

Hauekin jarraituz, egunerokotasunean oinarritutako helburua dugu eta egoera ezberdinen bitartez ager daitezkeen arazo ezberdinei aurre egiten ikastea. Hau lantzeko asmoz, hainbat jarduera egin genituen, egoera ezberdinak simulatuz eta imitazioen bidez eta gainera asko gustatu zitzairen jarduera izan zen. Hortaz, behin eta berriz

errepikatu genuen jarduera izan zen eta oso gustora ibili ziren. Uste baino hobe moldatu ziren, arazo ezberdinak ezartzean, egoera ezberdinei aurre egiteko.

Laugarren helburu bezala, dramatizazioaren bidez, berdintasuna, adiskidetasuna, laguntza, elkarlana, aniztasuna eta abar lantzea zen. Lan osoan zehar aipatu dudana bezala, helburu hori, zerbitzua eman aurretik lortuta zuten. Egia esan, nire sorpresarako, balore hauek oso barneratuak zituzten elkarteko kide bakoitzak.

Azkenik, mugimenduaren bidez, harremanak sendotzeko bestelako bideak ezagutu behar zituzten. Egia esan, lortzeko zaila iruditzen zitzaidan helburua zen, izan ere, mugimenduaren bidez harremanak lantzearen kontzeptua ez nuelako oso argi ikusten errealitatean aplikatzeko momentuan. Baina prestatutako jarduerekin, haien artean lagundu egiten ziren eta zailtasunen aurrean, elkarlana martxan jartzen zuten. Beraz, azken finean, harreman horiek, jolasa eta mugimenduekin bidez, lantzeko beste modu bat izan daitekeela esan dezaket.

Beraz, lehen esan bezala, helburuak gutxi gora behera landu egin direla esango nuke. Nahiz eta kasu batzuetan, autismoa duten kideekin alegia, nahi izan dudana ez dudana lortu. Hala ere, hiru saioekin ezin dira aldaketa askorik ikusi eta hau egitearen asmoa, horrelako ekintzetan parte hartzeko aukera ez duten ikasleei, mota honetako ekintzak eskaintzea izan da, modu honetan esperientzia berriak ezagutzeko aukera eskainiz. Gainera, aurpegi espresioarekin eta transmititzen zutenarik, gustora ibili direla esatera haursatzen naiz, hortaz, helburua lortu dudala esango nuke, eskeini diedan zerbitzu batekin, guztion arteko momentu ezberdinak eta dibertigarriak pasatzea. Eta hori, lortu dudala esango nuke.

Beraz, bukatzeko esango nuke, lan honi esker, horrelako zerbitzuak jasotzeko zailtasunak dituzten haur eta kide asko daudela ikusi dudala. Gainera, horrelako momentuak pasatzea, haientzat oso garrantzitsua izan den zerbait bezalakoa ikusten dut, izan ere, une hauetan, hainbat pertsona ezagutzeko aukera ematen dute eta horretaz gain, jende ezberdinarekin elkarlanean aritzeko aukera. Txikiak direnetik garatzen badugu, handiak egiten diren heinean, oso prozesu garrantzitsua izango dela esango nuke, autonomia eta independentzia garatzen dugulako eta gizarteko kide bezala ikusten dugulako gure burua, indibidualki baita sozialki ere.

Horretaz gain, esku-hartze bat lasaitasunez eta modu seguruago batean aurrera eramaten ikasi dut, nahiz eta berria den zerbait egiten dugun unean urduritasuna izan. Pertsonalki, nire burua lehen baino gehiago baloratzen ikasi dut. Eta zerbait gaizki edo espero bezala ateratzen ez bada, ez dela ezer ez pasatzen, izan ere, beti gauza asko eta konplexuak egiten ditugu, lan hobeko bat dela uste dugulako eta askotan errazagoa da, erraza den zerbait eta polita dena haur edo parte-hartzaileengana iristea.

Gaitasun profesionalei begira, jendearekin, haurrekin, aniztasun funtzionala duten pertsonekin eta abar horrelako esperientziak bizitzean, beti positiboak diren gauzak eta negatiboak direnak ezagutzen ditugu. Nire kasuan, negatibo bezala, esku-hartze bat prestatzea izan da, haien gustu eta ezagutzak zeintzuk ziren jakin gabe. Klaseak prestatzeko momentuan edo horrelako zerbitzuak emateko orduan, gure jakintzetatik abiatzen gara eta zentzu batean hori egitea beharrezkoa da. Baina, parte-hartzen dutenei ere iritziak, nahiak, beharrak... esateko edo adierazteko aukera hori ematea ongi legokela uste dut. Azken finean, guk eskaintzen diegun zerbait da baina beraiek dira prozesu hori aurrera eramatea ahalbidetzen dutenak. Beraz, motibazioa izatea ezinbestekoa da eta horretarako, zerbait prestatu edo egin aurretik, kideak ezagutzea ezinbestekoa dela uste dut.

Oso esperientzia aberasgarria eta polita izan da baina aldi berean, aurretik aipatutakoarekin lotura eginez, hain motza izatean, ez dut denborarik izan benetan kideak nahi bezala ezagutzeko. Hala ere, oso positiboa izan da, bai nire formazioarako, aniztasun funtzionala duten gazteekin nola jokatu behar den ikusi dudalako eta baita pertsonalki transmititu didatenagatik.

## **7. MUGAK ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK**

Hobetzeko proposamen bezala, aipatuko dudan lehenengo gauza denbora falta da, hori da, zerbitzua eskaini aurretik, kideak ezagutzea eta agian pare bat hiru egunez, hauek behatzea. Modu horretan, haiei egokitutako zerbait prestatzeko aukera gehiago egongo baitzen.

Gainera, orain aipatutakoari erreferentzia eginez, I+Z, Capella-k, Gil-ek eta Marti-k (2014) esaten duten bezala, pertsona bakoitzaren esperientzietatik abiatutako ikasketan oinarritzen da. Beraz, denborarik gabe eta zuzenean esku-hartze batekin hasten garen momentutik, ideia hau ez dugu errespetatzen.

Horretaz gain, zerbikas-ek (2020), azaltzen duen bezala, borondatezko hezkuntza proposamen bezala definitzen du I+Z eta aldi berean, honi esker komunitateak dituen behar batzuei erantzuna ematen zaiola. Gainera, Puig-ek, Gijon-ek, Martin-ek eta Serrano-k (2011) esaten duten bezala, ikasleek edo zerbitzua jasotzen dutenak hainbat balore eskuratzeko gai izango dira praktika honen bitartez.

Beraz, I+Z eskaintzen den momentuan, argi izan behar dugu, horrelako ekintzetan parte-hartzeko aukera ez duten ikasleei zuzenduta dagoela, horrela ekintza ezberdinak eskainiz eta modu honetan, esperientzia berriak ezagutzeko aukera eskaini egiten dira. Gainera, egunerokotasunean gerta daitezkeen hainbat egoeren aurrean jokatzen ikasteko aukera ematen zaie, gizarteko kide sentiarazten diegun bitartean.

Esango nuke, helburu hau bete egin dela zerbitzua eskaini dudan momentuan, kide hauei esperientzia honen partaide egin izanagatik. Baina hasieran aipatzen dudana, haien esperientzietatik abiatu behar garela eta denbora mugatuagatik, I+Z batek eskatzen duena osotasunean lortu ez dudala esango nuke. Gehien bat denbora mugatua izanda, ez dugulako benetan lortu duguna oso ongi ikusteko aukerarik izan eta gainera nire kasuan, saio baten faltan geratu naiz.

## **8. ERREFERENTZIAK**

237/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, Haur Hezkuntzako curriculumaz zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa.

Barroso, M. eta Fontecha, C. (1999). La importancia de las dramatizaciones en el aula de ele: una propuesta concreta de trabajo en clase. Actas del X Congreso ADES (Asociación para la difusión del español y la cultura hispánica). Cadiz: Universidad de Cádiz. Honako webgunetik berreskuratua 2020ko martxoaren 12an:[https://cvc.cervantes.es/ensenanza/biblioteca\\_ele/asele/pdf/10/10\\_010\\_5.pdf](https://cvc.cervantes.es/ensenanza/biblioteca_ele/asele/pdf/10/10_010_5.pdf)

Battle, R., García, M., Parpal, C., eta García, M. (2015). Dibujando caminos: el aprendizaje-servicio en la educación en el tiempo libre. *Árbol académico. Profesorado: Revista de curriculum y formación del profesorado*, 19(1), 60-77.

Battle, R. (2014). *Guía práctica de aprendizaje-servicio*. Madril: Santilla S.L. Honako webgunetik berreskuratua 2020ko martxoaren 12an:<https://roserbattle.net/wp-content/uploads/2018/09/Guia-practica-ApS.pdf>

Capella, C., Gil, J., eta Martí, M. (2014). La metodología del aprendizaje-servicio en la educación física. *Service-Learning Methodology in Physical Education. Apunts. Educacion Fisica y Deportes*, 116, 33-43. Honako webgunetik berreskuratua 2020ko martxoaren 12an:<http://repositori.uji.es/xmlui/bitstream/handle/10234/120023/63944.pdf;jsessionid=40DF8C15D75BE9DFCDB980FF9FE83F91?sequence=1>

Cervera, J. (2005). La dramatización en la educación. Valentziako unibertsitatea (395-401) digitalizazioa. Honako webgunetik berreskuratua 2020ko martxoaren 12an:[https://accedacris.ulpgc.es/bitstream/10553/5206/1/0235347\\_01992\\_0082.pdf](https://accedacris.ulpgc.es/bitstream/10553/5206/1/0235347_01992_0082.pdf)

Coteron, J. eta Sánchez, G. (2010). Educación artística por el movimiento: La expresión corporal en educación física. *Aula: Revista de Pedagogía de la Universidad de Salamanca*, 16, 113-134. Honako webgunetik berreskuratua:[https://www.researchgate.net/profile/Javier\\_Coteron/publication/277269743\\_Educacion\\_artistica\\_por\\_el\\_movimiento\\_la\\_expresion\\_corporal\\_en\\_educacion\\_fisica/links/56444eaf08ae451880a712d2/Educacion-artistica-por-el-movimiento-la-expresion-corporal-en-educacion-fisica.pdf](https://www.researchgate.net/profile/Javier_Coteron/publication/277269743_Educacion_artistica_por_el_movimiento_la_expresion_corporal_en_educacion_fisica/links/56444eaf08ae451880a712d2/Educacion-artistica-por-el-movimiento-la-expresion-corporal-en-educacion-fisica.pdf)

- Cruz, P. (2014). Creatividad de Inteligencia Emocional. (Como desarrollar la competencia emocional, en Educación Infantil, a través de la expresión lingüística y corporal. *Comunicación Social*, 19, 107-118.
- Fleming, M. (1994). *Starting Drama Teaching*. London: David Fulton Publishers.
- García Carrasco, J. (2006). El escenario emocional y la dramática de la formación. En J. M. Asensio, J. García, L. Núñez y J. Larrosa (Coords.). *La vida emocional. Las emociones y la formación de la identidad humana* (87-126 or.). Ariel: Barcelona.
- Gil, J., Chiva, M., eta Martí, M. (2014). El aprendizaje de contenidos de educación física en la universidad mediante aprendizaje servicio. Un estudio cuantitativo y cualitativo. *Tándem, Didáctica de la Educación Física*, 44, 15-25. Honako webgunetik berreskuratua 2020ko martxoaren 12an:<https://www.uv.es/aps/doc/Libros/2014-8.pdf>
- Martínez, M. (2008). *Aprendizaje servicio y responsabilidad social de las universidades*. Barcelona: Octaedro. Honako webgunetik berreskuratua:[http://sgpwe.izt.uam.mx/files/users/uami/sabi/Aprendizaje\\_y\\_servicio/pdfs/Aprendizaje\\_servicio\\_y\\_responsabilidad\\_social\\_de\\_las\\_universidades.pdf#page=11](http://sgpwe.izt.uam.mx/files/users/uami/sabi/Aprendizaje_y_servicio/pdfs/Aprendizaje_servicio_y_responsabilidad_social_de_las_universidades.pdf#page=11)
- Mendia, R (2016). El aprendizaje-servicio: una metodología para la innovación educativa. Fundación ZERBIKAS, Revista CONVIVES Revista Digital, 16. Honako webgunetik berreskuratua:<https://redaps.files.wordpress.com/2018/07/el-aprendizaje.pdf>
- Navarro, M.R. (2007). Drama, creatividad y aprendizaje vivencial: Algunas aportaciones del drama a la educación emocional. *Cuestiones pedagógicas*, 162, 161-172. Honako webgunetik berreskuratua:<http://institucional.us.es/revistas/cuestiones/18/10%20drama,%20creatividad.pdf>
- Noguera, I. (2020). Euskara eta berrikuntza. *Berria egunkaria*, 2020-02-18. . Honako webgunetik berreskuratua:<https://www.berria.eus/paperekoa/1984/017/003/2020-01-18/euskara-eta-berrikuntza.htm>
- Núñez, L. eta Navarro, M. R. (2007). Dramatización y Educación: Aspectos teóricos. *Teoría de la Educación*, 19, 225-252.
- Puig, J., Gijón, M., Martín, X., eta Serrano, L. (2011). Aprendizaje- servicio y Educación para la Ciudadanía. *Revista de Educación, zenbaki berezia*, 45-67. Honako webgunetik



berreskuratua:[http://www.revistaeducacion.educacion.es/re2011/re2011\\_03.pdf](http://www.revistaeducacion.educacion.es/re2011/re2011_03.pdf)

Puig, M., Batlle, R., Bosch, C. eta Palos, J. (2007). *Aprendizaje servicio. Educar para la ciudadanía*. Barcelona: Octaedro Honako webgunetik berreskuratua: <http://educacion.wke.es/agendaonline/Admin/Upload/2816/aprendizaje%20servicio%20muestra.pdf>

Sandoval, F. (2006). *Pedagogía teatral una propuesta didáctica cargada de innovación*. Programas de educación continua UCSC. Honako webgunetik berreskuratuta 2020ko martxoaren 12an:<https://tallerdeexpresionesintegradas.files.wordpress.com/2010/10/pedagogia-teatral-y-didactica.pdf>

Sos, M., Jiménez, D., Monfort, A., Peris, A., eta Soler, X. (2011). El taller de teatro como medio de inclusión y convivencia. *Mestres del CEIP Serrano Súñer. Castellón*. Honako webgunetik berreskuratua:<http://quadernsanimacio.net/ANTERIORES/doce/pdfs/teatre.pdf>

Vaca, M. (2000). Reflexiones en torno a las posibilidades educativas del tratamiento pedagógico de lo corporal en el segundo ciclo de educación infantil. *Revista Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, 37, 103-120.

Zerbikas fundazioa. (2020). Ikasketa eta zerbitzu solidarioa *definizioa*. Honako webgunetik berreskuratua 2020ko martxoaren 12an:<http://www.zerbikas.eus/que-es-ayss/definicion/>

## 9. ERANSKINAK

### SAIOAK:

#### Lehenengo saioa

- Lekua: Gela itxia bat
- Denbora: Bi ordu eta erdi
- Materiala: Saio honetarako ez da material fisikorik behar.
- Helburua: Mugimendua identifikatu eta lantzea. Elkar ezagutzea.
- Jarduerak:
  - Beroketa: Lehenengo eguna izanda beroketa bi ataletan banatuko da; lehenengoa, ezagutza jolas batekin elkar ezagutzeko helburua duena eta bigarrena dramatizazio beroketa.
    1. *Ezagutza jolasa*: Korroan gaudela, bakoitzak bere izena esango du eta horrekin batera mugimendu bat egingo du. Berea esan aurretik, bere aurretik dauden partaideen izena eta mugimendua errepikatu beharko du.
    2. *Dramatizazio beroketa*: Espazioan zehar ibiltzen hasiko dira eta irakasleak esanda, hainbat gatazka ezberdin sortuko dira. Adibidez: globoak erortzen dira eta ziztatu behar dituzte, putzuak lurrian agertuko dira eta ezin izango dituzte zapaldu, inurriak izango dituzte gorputzean zehar etab.
  - Atal nagusia
    1. *Jarduera*: Korroan eserita gaudela, egindako mugimenduen inguruan galdetuko zaie eta horren inguruko gogoeta bat taldean egingo dugu.
    2. *Jarduera*: Lehenengo jardueran ateratako ideiak kontuan izanda, 4-5 partaidetako talde txikietan, simulatu beharko

dituzte. Denbora bat izango dute hori prestatzeko eta gero denen aurrean egingo dute.

3. *Jarduera*: Oraingo honetan, imitatu beharrekoa irakasleak egokituko die. Aurrekoan bezala, denbora bat pasata, antzestu egingo dute. Hemen, talde bakoitzak mugimendu ezberdinak izango dituzte eta gero gainontzeko taldeek zer imitatu duten asmatuko dute. Adibidez: Ezin dute aurrera pausorik eman, hitz egiterakoan partaide bati ez diote ezer ez ulertuko, ezin dituzte eskuak mugitu etab.

- Bukaera: Berriro lasaitasunera bueltatzeko, bukera bi ataletan banatuko da. Lehenengoan, aurreko jardueren amaiera izango da, antzezlan bat ezarriz modu lasai batean.

Eta bigarren zatia, saioaren amaiera izango da. Egindakoaren inguruan hitz eginez.

### Bigarren saioa

- Lekua: Gela itxia bat
- Denbora: Bi ordu eta erdi
- Materiala: Kartulina, errotulagailuak, koltxonetak edo zapiak.
- Helburua: Autonomia etabaliabideen bitartez, dramatizazioarekin bidez, mugimendua eta ahozkotasuna landu.
- Jarduerak:
  - Beroketa: Jolasaren bitartez egingo da, egoera bat simulatuz. Laku edo ibai batean daude non kokodriloak dauden ere. Lurrean dagoen materialaren gainean bakarrik egon daitezke salbu baina baldintza batzuk daude:
    - Ura ikutuz gero, kokodrilo bihurtzen zara.
    - Lurrean dagoen materialaren gainean 10 segunduz egon zaitezke, bestela kokodrilo bihurtzen zara.
    - Lurrean dagoen materialaren gaineran, bakarrik 3 pertsona egon daitezke, laugarrengo bat iristen bada hura kokodrilo bihurtuko da.
  - Atal nagusia:

1. *Jarduera:* Korroan gaudela, aurreko eguneko jardueren inguruan hitz egingo dugu. Oraingo honetan jardueri aurre egiteko zer baliabide edo gaitasun dituzten galdetuko diegu.
  2. *Jarduera:* 4-5 partaideetako taldeei istorio bat emango zein simulatu eta aurre egin beharko dieten. Adibidez: Ogia erostera doaz eta ez dute dirurik. Gainontzekoen aurrean egin beharko dute.
  3. *Jarduera:* Talde berdinei beste istorio bat emango zaie eta honi aurre egiteko haien gaitasunak kontuan hartuta super heroi talde bat asmatu beharko dute. Ondoren, gainontzekoei aurkeztu beharko diete.
- Bukaera: Korroan gaudela, super heroi taldeetan agertu diren gaitasunak kartulina batean apuntatuko ditugu eta hauen inguruan hitz egingo dugu.

### Hirugarren saioa

- Lekua: Gela itxia bat
- Denbora: Bi ordu eta erdi
- Materiala: Sokak edo zapiak eta aulkiak.
- Helburua: Mugimenduaren bidez harremanak sendotzeko bestelako bideak ezagutzea.
- Jarduerak:
  - Beroketa: Gelaren lurra itsasoan dagoen egur zati bat izango da. Gu horren gainean gaude eta uretara ez erortzeko, espeazioan orekatu beharko gara. Baldintza bakarra, ezin garela geldirik egon da.
  - Atal nagusia:
    1. *Jarduera:* 4-5eko taldeetan idatzizko istorio bat banatuko zaie eta hau keinuen bidez simulatu beharko dute. Ondoren gainontzeko taldeek, istorioa zein den asmatu beharko dute.
    2. *Jarduera:* Taldeek nahi dutena antzeztu beharko dute baina haien artean eskumuturrak lotutak izango dituzte.

3. *Jarduera*: Beste istorio bat antzeztuko dute baina oraingo honetan talde bakoitzak aulki bat izango du. Kasu honetan, baldintza inago da, aulkia istorioan sartu beharko dute baina beste objektu bezala.
- Bukaera: Agertu diren egoera guztiak esango dituzte eta hauei nola egin dieten aurre kotatuko dute. Ondoren, banan bana agurtuko gara aurpegiarekin zerbait eginez.

### Laugarren saioa

- Lekua: Gela itxia bat
- Denbora: Bi ordu eta erdi
- Materiala: Baloiak edo pilotak.
- Helburua:
- Jarduerak:
  - Beroketa: Bakoitzari baloi edo pilota bat banatuko zaie honekin mugimenduak egiteko. Haien artean txandakatuz, zelako mugimendua egin, beraien artean esan beharko dute. Adibidez: baloiak asko pisatzen du eta ezin dugu berarekin, oso gutxi pisatzen du eta oso arin eramaten dugu etab.
  - Atal nagusia:
    1. *Jarduera*: Talde txikietan, hainbat egoera pentsatu.
    2. *Jarduera*: Pentsatutako egoera hauek taldeetan banatuko dira, hauei aurre egiteko.
  - Bukaera: Saio guztien gogoeta bat egin, haien sentimenduak zeintzuk izan diren adieraziz. Zein joku edo saioa gustatu zaien gehien eta honen arabera, hori errepikatzeko aukera egongo da.

### ARGAZKIAK



